



Ajangizko Udala

AJANGIZKO UDALAK 2007KO URRIAREN 25EAN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Angel Luis Uribarri Gondra jauna
Maria Angeles Goikolea Uriarte andrea
Beñat Erezuma Arisketa jauna
Jasone Bernaola Aurrekoetxea andrea
Roman Etxeandia Zabala jauna*

Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2007ko urriaren 25ean arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deidaldia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ez ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

Gai zerrenda aztertzen hasi aurretik, EUDELeK, azaroaren 25 emakumeen indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela eta udalerrri guztiei proposatu dien adierazpen instituzionalaren berri ematen du Alkateak. Bertaratutako zinegotziek aho batez onartzen dute adierazpena gai zerrendako 7. Puntu modura sartzea, honako titulu honekin: "7.- *Emakumeen indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela eta azaroaren 25eko adierazpen instituzionalaren onarpena, behar bada*".

1.- AZKEN BILERETAKO AKTAK IRAKURRI ETA ONEZTEA, BEHAR BADA.-

2007ko uztailaren 12an izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin, onartuta geratzen da.

2007ko abuztuaren 13an izandako ez ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin, onartuta geratzen da.



Ajangizko Udala

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONEZPENA, BEHAR BADA.-

2007/22 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

Ajangizko Idazkari Kontuhartzaitza postuak duen lan maila kontutan hartuta, eta lan hori burutzeko beharrezko dedikazio orduak gehitu direla kontutan hartuta.

Alkate Udalburuari Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak ematen dizkion eskumenetan oinarrituta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Saioa Pineda Aranburu andrearen aldeko oinarrizko soldataren gaineko %8ko osagarri berezia onartzea, lanpostuaren betebeharrak betetzen diren heinean.

Bigarren.- Erabaki hau Alkatearen eskumena den heinean ematen da, Alkateak berak duela eman bezala kentzeko eskumena.

Hirugarren.- Interesdunari ebazpen honen berri ematea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

Ajangizen, 2007ko uztailaren 12an.

2007/23 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.2 artikuluan arautzen duena kontutan hartuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Alkatea ez dagoenean, kanpoan dagoenean edo gaixo dagoen kasuetan bera ordeztuko duen ondorengo Alkate Ordea izendatzea:

1. Alkate Ordea: Jabier Berrojalbiz Bidaguren

Hirugarren.- Interesdunari ebazpen honen berri ematea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

Ajangizen, 2007ko uztailaren 12an.



Ajangizko Udala

24/2007 ALKATE DEKRETUA

Ajangizko Mentzeta bidera doan bidea konpontzeko lanetarako burutu beharrezko desjabetzazapenatarako, Udalak 11.325,16 euro behar ditu, lurzorua eskuratu ahal izateko.

2007ko udal aurrekontuan, 7.000 euro aurreikusten dira 432.600,00 lurzoruen eskuraketa partidan. Beraz, 4.325,16 euro gehitzea beharrezkoa da. Aurrekontu berean 12.000,00 euro aurreikusten dira proiektuetarako, kopuru guzti hori 2007an erabiltzeko aurreikuspenik gabe.

Ajangizko Udal honen aurtengo Aurrekontuko gastuen aurrekontu partiden artean kreditu transferentziak egitea beharrezkotzat joenez gero, Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak 29. artikuluan jasotakoaren babespean, hau dekretatu dut:

Izapidatu bedi gastuen aurrekontu partiden artean kreditu transferentzia egiteko espedienteak, aipatutako xedapenetan jasotako erregulazioari loturik, Idazkari-Kontuhartzailearen proposamena eta txostena eginez. Jarraian, jar bedi organo eskudunaren onespenera.

Ajangizen, 2007ko abuztuaren 6an.

2007/25 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

Kreditu transferentzia bidezko 2007/02 Kreditu Aldaketarako espedienteak ikusita.

Idazkari-Kontuhartzaileak egin duen aldeko txostena ikusita.

Abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauak 29. Artikuluan arautzen duenaren arabera ematen dizkidan eskumenak kontutan hartuta.

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Kreditu transferentzia bidezko 2007/02 Kreditu Aldaketarako espedienteak onartzea, honako baldintzen arabera:

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gutxipena	Amaierako kreditua
432.629.01	Proiektuak	12.000,00	4.325,16	7.674,84



Ajangizko Udala

GUZTIRA ...	12.000,00	4.325,16	7.674,84
-------------	-----------	----------	----------

Gehituko diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
432.600.00	Lurren eskuraketa	7.000,00	4.325,16	11.325,16
GUZTIRA ...		7.000,00	4.325,16	11.325,16

Bigarren.- Ebazpen hau behin betikoa eta irmoa izaki, Udaletxeko Kontuhartzaitzari aldaketa kontabilitatean zehazteko agindua luzatzen zaio, ebazpen honen berri hurrengo ohiko osoko bilkuran ematearen kalterik gabe.

Ajangizen, 2007ko abuztuaren 8an.

2007/26 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

Felix Urrutia Etxabe jaunak Zubiaurre Goikoa baserri barruan burututako lanen legeztapena lortu zuen Alkatetzak 2007ko uztailaren 6an emandako 21/2007 Dekretuaren bitartez.

Aurkeztutako proiektuaren arabera, Udalak likidatutako behin behineko zerga eta tasa kopurua, 1.582,45 eurokoa da:

- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko zerga: 1.197,49 €
- Obretarako lizentzia emateagatiko tasa: 384,96 €

Felix Urrutia jaunak Udalaren dirulaguntza eskatu du, nekazari den heinean, Nekazaritza erregimen bereziaren ordainketa agiria eta Nekazaritza Ustiategiaren Txartela aurkeztuz.

Udal Osoko Bilkurak, 1991ko abenduaren 14an ospatutako batzarrean, besteak beste honako erabaki hau hartu zuen:

Todos aquellos caseríos que estén declarados como tales tendrán una subvención por parte del Ayuntamiento de Ajangiz, consistente en la devolución de las tasas que tendrían que pagar por arreglo o reforma. Primero tendrían que pagar la tasa o impuesto municipal correspondiente y después de verificada la obra se procedería a su devolución.

Urrutia jauna nekazaritza bizibide duela justifikatu duela kontutan hartuta, eta aurkeztutako dokumentazioa ontzat jota,



Ajangizko Udala

EBAZTEN DUT:

1.- Felix Urrutia Etxabe jaunari 1.197,49 euroko dirulaguntza ematea Zubiaurre Goikoa baserriaren konponketarako.

2.- Ebazpen honen berri interesdunari ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

Ajangizen, 2007ko abuztuaren 17an

2007/27 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

LEON GARAIGORDOBIL BERRIZBEITIA JAUNAK, AJANGIZKO MALOSTE AUZOKO 17. ETXEAN TEILATUA KONPONZEKO AURKEZTUTAKO BAIMEN ESKAERA.-

Leon Garaigordobil Berrizbeitia jaunak, jakinerazpenetarako helbidea Ajangizko Maloste 17an duenak, etxeko teilatua konpontzeko baimena eskatu zuen Udaletxean 2007ko uztailaren 23an (588 sarrera zbkia.).

Eskaerarekin batera 2.288,00 euroko aurrekontua aurkeztu zuen.

Udal Arkitekto aholkulariak 2007ko uztailaren 26an egindako txostenaren arabera, teilatua konpontzeko ez dago inolako hirigintza oztoporik. Baina lanak hasi aurretik legeak eskatzen dituen segurtasun neurriak bermatzen direla azalduz obrak burutuko dituen enpresak sinatutako ziurtagiria aurkeztu behar da Udaletxean.

Udal arkitekto aholkulariak egindako txostena aintzat hartuta, eta legeak ematen dizkidan eskumenetan oinarrituta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Leon Garaigordobil Berrizbeitia jaunari, Ajangizko Maloste auzoko 17. Etxeko teilatua konpontzeko baimena ematea, aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta, ondoren azaltzen diren baldintzen arabera, jabetza eskubidea salbu eta hirugarren pertsonetikiko kalterik gabe.

Bigarren.- Lanak hasi aurretik legeak eskatzen dituen segurtasun neurriak bermatzen direla azalduz obrak burutuko dituen enpresak sinatutako ziurtagiria aurkeztu behar da Udaletxean.



Ajangizko Udala

Hirugarren.- Eraikitze lanak hasteko epea hilabetekoa izango da eta hiru hilabetekoa bukatzeko epea, bi epe hauek jakinerazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko direlarik.

Laugarren.- Eskainitako epearen erdiko luzapen bakarra eman daiteke, beti ere interesdunak epea bukatu aurretik eta behar bezala arrazoituta luzapenerako eskaera egiten baldin badu, idatziz eta Udal Erregistroan sarrera emanez.

Aipatutako epetako bat beteko ez balitz, lizentzia eraungituta eta efektu gabea bilakatuko da, horrek lanak berehala etentzeko beharra ekarriko duelarik. Etentza berehalakoa ez bada, zigor prozedura martxan jarriko litzateke. Pertsona eta ondasunen segurtasunerako behar beharrezkoak diren lanei dagokionez, udalaren ikuskaritzarekin bukatuko dira.

Bosgarren.- Eraikuntza lanak hasi aurretik, eskatzaileak Eraikuntza, Instalazio eta Lanen gaineko zerga ordaindu beharko du, behin betiko kitapenaren arabera. Lanak bukatzean, lan bukaerako ziurtagiria aurkeztu beharko da behin betiko kitapena burutu ahal izateko.

Seigarren.- Pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko diren neurri guztiak hartuko dira, materiale eta lan tresnak erabilera publikoko lursailera erortzea ekidituz, indarreango Segurtasun eta Osasun neurrien arabera.

Lizentziaren titularra lanen ondorioz suertatzen diren kalte guztien erantzule izango da, eta ezin izango da udal baimena erantzunkizun hori ezabatu edota arintzeko erabili.

Lan hondakinak baimendutako biltegietara eramane beharko dira.

Zazpigarren.- Baimena udal konpententzien barruan ematen da, hirugarren erakundeei edota partikularrei ematea dagozkion baimenen kalterik gabe.

Zortzigarren.- Interesdunari ebazpen honen berri eta Eraikuntza Instalazio eta Lanen gaineko zergaren kitapenaren berri ematea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

Ajangizen, 2007ko abuztuaren 17an

2007/28 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

Gernika – Lumoko San Fidel Ikastolaren ordezkartzan, Ikastolako Zuzendaria den Begoña Zabaleta andreak, aurreko urteetan modura, irailaren 28an LH-ko ikasleekin Ajangizera antolatu duten txangorako, herriko plaza erabili eta megafonia jartzeko udaletxeko entxufe bat erabiltzeko baimena eskatu du.

Indarreango legediak ematen dizkidan eskumenetan oinarrituta,

EBAZTEN DUT:



Ajangizko Udala

1.- Gernika Lumoko San Fidel Ikastolak irailaren 28rako antolatu duen txangorako Herriko Plaza eta Udaletxeko entxufe bat erabiltzeko baimena ematea.

2.- Eskatzailea sortu daitezken kalteen erantzule izango da. Egun horretarako arduradun bat izendatuko da Udalarekin harremanetarako.

3.- Erabiltzaileei ingurua errespetatzea eskatuko zaie, paperontziak erabiltzea, komunak behar bezala erabiltzea ...

4.- Ebazpen honen berri interesdunari ematea, jakitun izan daiten eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

Ajangiz, 2007ko irailaren 19an.

2007/29 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

Ciclista Gernikesaren izen eta ordezkaritzan, Isidro Rodriguez Puente jaunak urriaren 13rako antolatu duten mendiko txirrindularitza ibilbidearen berri ematen du 2007ko abuztuaren 31ko idatzian (647 sarrera zbkia.).

Ibilbidearen parte bat Ajangizen antolatua dagoela eta, Ajangizko Udalari herri bidea erabiltzeko baimena eskatzen diote, probak Bizkaiko Txirrindulari Federakundearen baimena duela ziurtatuz.

Aurkeztutako eskaera kontutan hartuta,

EBAZTEN DUT:

1.- Datorren urriaren 13an ospatuko den mendiko txirrindularitza ibilbidea burutzeko, Ajangizko Udal jabegopeko herri bidea erabiltzeko baimena ematea. Baimen hau herri bideak BAKARRIK erabiltzeko ematen da, istripuren bat egongo balitz prebentzio neurriak hartu beharko dituztelarik.

2.- Baimen hau jabego eskubidearen salbu eta hirugarren pertsonetikiko kalterik gabe ematen da, antolatzaileak arduratuko direlarik jabego pribatuko bideetatik pasatzeko baimena dagozkion jabeari eskatu eta baimen hori lortzeaz.

3.- Baimen hau beste eskudun erakundeek ezarritako baldintzapean ematen da; baimena udal eskumenen arloan ematen da, gainerantzeko erakunde edota partikularrek eman behar dituzten baimenen kalterik gabe.

4.- Udalak ikusketa bisitaldia egiterik izango du, aurkeztutako eskaeran aipatzen den zirkuitoa emandako baimenarekin bat datorren ikusteko; partikularrekin desakordioak egongo balira, ibilbidea aldatzeko era begiratu beharko litzateke.



Ajangizko Udala

5.- Eskatzailek frogaren ondorioz sortu daitezkeen kalte guztien erantzule izango da, eta ezin izango da udal baimena erantzunkizun hori ezabatu edota arintzeko erabili. Halaber, froga burututa antolatzaileak herri bideak egoera onean eta garbi utzi beharko dituzte, inolako aztarnarik gabe.

6.- Ebazpen honen berri interesdunari ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

Ajangizen, 2007ko irailaren 20an.

2007/30 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

LUIS MARIA URIBE ISASI JAUNAK, MENDIETA 51 ETXEKO ERRETIKA KONPONTZEKO AURKEZTUTAKO BAIMEN ESKAERA.-

11/2007 Esp.

Luis Maria Uribe Isasi jaunak, Mendieta auzoko 51 etxeke teilatua konpontzeko baimena eskatu zuen Udaletxean 2007ko uztailaren 17an (581 sarrera zbkia.).

Eskaerarekin batera, 5.000,00 euroko aurrekontua aurkeztu zuen.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatoaren Batzorde Iraunkorrek 2006ko uztailaren 19an hartutako erabakiaren arabera, udalek Urdaibai Biosfera Erreserbaren Erabilera eta Kudeaketa Planeko 130. Artikuluan arautzen den txostenik gabe lizentzia eman ahal izango dute besteak beste honako eraikuntza eskuhartzeetan:

- a) *Lehendik dauden eraikinetako edo instalazioetarako eraikuntza esku-hartzeak.*
- a.1) *Obra txikiak*
- *Erretilak eta teilatuen erreten nahiz zorrotenen konponketa*

Udal Arkitekto aholkulariak 2007ko irailaren 13an egindako txostenaren arabera, teilatua konpontzeko ez dago inolako hirigintza oztoporik. Txostenak adierazten duenez, lanek ez dute inolako gaitzik sortuko foru errepidean.

Udal arkitekto aholkulariak egindako txostena aintzat hartuta, eta legeak ematen dizkidan eskumenetan oinarrituta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Luis Maria Uribe Isasi jaunari, Ajangizko Mendieta auzoko 51 etxeke teilatua konpontzeko baimena ematea, aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta, ondoren



Ajangizko Udala

azaltzen diren baldintzen arabera, jabetza eskubidea salbu eta hirugarren pertsonetikiko kalterik gabe.

Lanak ez dute foru errepidearen eraginpeko lurrik afektatuko. Afekzioerik izango balitz, lanak burutu aurretik Foru Aldundiaren baimena lortu beharko da.

Bigarren.- Lanek ez dute teilatuaren oinarritzko egituraren eraginik izango, lanak burutuko dituen enpresak, altueran egiten diren lanetarako bete beharreko segurtasun neurriak bete beharko dituelarik.

Hirugarren.- Eraikitze lanak hasteko hilabetekoa izango da eta hiru hilabetekoa bukatzeko epea, bi epe hauek jakinerazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko direlarik.

Laugarren.- Eskainitako epearen erdiko luzapen bakarra eman daiteke, beti ere interesdunak epea bukatu aurretik eta behar bezala arrazoituta luzapenerako eskaera egiten baldin badu, idatziz eta Udal Erregistroan sarrera emanez.

Aipatutako epetako bat beteko ez balitz, lizentzia eraungituta eta efektu gabea bilakatuko da, horrek lanak berehala etentzeko beharra ekarriko duelarik. Etentza berehalakoa ez bada, zigor prozedura martxan jarriko litzateke. Pertsona eta ondasunen segurtasunerako behar beharrezkoak diren lanei dagokionez, udalaren ikuskaritzarekin bukatuko dira.

Bosgarren.- Eraikuntza lanak hasi aurretik, eskatzaileak Eraikuntza, Instalazio eta Lanen gaineko zerga ordaindu beharko du, behin behineko kitapenaren arabera. Lanak bukatzean, lan bukaerako ziurtagiria aurkeztu beharko da behin betiko kitapena burutu ahal izateko.

Seigarren.- Pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko diren neurri guztiak hartuko dira, materiale eta lan tresnak erabilera publikoko lursailera erortzea ekidituz, indarrengo Segurtasun eta Osasun neurrien arabera.

Lizentziaren titularra lanen ondorioz suertatzen diren kalte guztien erantzule izango da, eta ezin izango da udal baimena erantzunkizun hori ezabatu edota arintzeko erabili.

Lan hondakinak baimendutako biltegiara eraman beharko dira.

Zazpigarren.- Baimena udal konpententzien barruan ematen da, hirugarren erakundeei edota partikularrei ematea dagozkion baimenen kalterik gabe.

Zortzigarren.- Interesdunari ebazpen honen berri eta Eraikuntza Instalazio eta Lanen gaineko zergaren kitapenaren berri ematea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

Ajangizen, 2007ko irailaren 20an.



Ajangizko Udala

2007/31 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

JON ALASTRA MINTEGIA ETA NOELIA SERNA DOMINGUEZ JAUN-ANDREEK KANPANTXUKO BIZTANLEGO GUNeko C4 LURZATIAN FAMILIA-BAKARREKO ETXEBIZITZA ERAIKITZEKO AURKEZTUTAKO BAIMEN ESKAERA.-

8/2006 Esp.

Jon Alastra Mintegia eta Noelia Serna Dominguez jaun-andreek, Ajangizko Kanpantxu auzoko biztanlego guneko C4 lurzatian familia bakarreko etxebizitza eraikitze baimena aurkeztu zuten Udaletxean, dagokion bazkun profesionalak onetzitako exekuzio proiektua aurkeztuz. Proiektuaren arabera, lanen aurrekontu orokorra, 128.753,96 eurokoa da.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Egitamu Gidariak 130. Atalean aurreikusten duen aginduzko txostena lortu asmoz Udalak egindako eskaera erantzunez, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuko Batzorde Iraunkorrek 2007ko uztailaren 18an egindako batzarrean hartutako erabakiak azaltzen duenaren arabera, *"txosten honetan aipaturiko eraikinak bete egiten ditu Egitamu Gidariaren biztanleguneko eremuetarako ezarritako xedapenak eta Antolamendu Zuzeneko Arauak"*.

Udal arkitekto aholkulariak egindako txostenaren arabera, Kanpantxuko biztanleguneko C4 lurzatian familia bakarreko etxebizitza eraikitze exekuzio proiektua Ajangizko Arau Sorosgarriek jasotzen dituzten hirigintza baldintzak betetzen ditu, eta ondorioz ez dago lanetarako udal baimena emateko inolako hirigintza oztoporik.

Adierazitako guztia kontutan hartuta eta udal teknikariak sinatutako aldeko txostenean oinarrituta, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21 q) atalean jasotzen dituen eskumenen arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Jon Alastra eta Noelia Serna jaun-andreei, aurkeztutako proiektuaren arabera, Ajangizko Kanpantxu biztanleguneko C-4 lurzatian familia bakarreko etxebizitza eraikitze baimena ematea.

Bigarren.- Eraikitza lanak hasteko epea sei hilabetekoa izango da eta hamazortzi hilabetekoa bukatzeko epea, bi epe hauek jakinerazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko direlarik.



Ajangizko Udala

Hirugarren.- Eskainitako epearen erdiko luzapen bakarra eman daiteke, beti ere interesdunak epea bukatu aurretik eta behar bezala arrazoituta luzapenerako eskaera egiten baldin badu, idatziz, eta Udal Erregistroan sarrera emanez.

Aipatutako epeetako bat beteko ez balitz, lizentzia iraungitua eta efektu gabea bilakatuko da, horrek lanak berehala etentzeko beharra ekarriko duelarik. Etentzea berehalakoa ez bada, zigor prozedura martzan jarriko litzateke. Pertsona eta ondasunen segurtasunerako behar-beharrezkoak diren lanei dagokienez, udalaren ikuskaritzarekin bukatuko dira.

Laugarren.- Udalari lizentziaren titulartasun aldaketa oro jakinerazi beharko zaio, titular berriak zein zaharrak sinatutako idatzi bidez. Titular berriak idatzi horretan, lizentziaren ondorioz sortutako betebeharrak guztiak bere gain hartuko ditu espresuki. Betebeharrak agiri publikoan bilduta baleude, titular berriak formalitate berberak aplikatuz bereganatu beharko litzuke.

Bosgarren.- Aurkeztutako agirietan azaltzen diren datuak gezurrezkoak balira edota lanak burutzean gora-beherarik suertatuko balitz, lizentziaren titularra zein proiektuaren egilea erantzule izango dira. Arau hau ez da aplikagarri izango proiektua egin duen teknikaria lanen zuzendari ez denean, kasu hauetan xehetasun hau Udalari aurretik jakinarazi beharko zaiolarik, dagokion onetsitako dokumentazioa aurkeztuz. Azken baldintza hau beteko ez balitz, lizentziaren titularrarekin batera proiektua sinatu duen teknikaria ere erantzule dela ulertuko da.

Teknikari zuzendaria aldatuko balitz, Udalari jakinerazi beharko zaio, aldaketa hori balioezten duen onetsitako dokumentazioa aurkeztuz.

Seigarren.- Eraikuntza lanak hasi aurretik, eskatzaileak Eraikuntza Instalazio eta Lanen gaineko zerga ordaindu beharko du, behin betiko kitapenaren arabera. Lanak bukatzean, lan bukaerako azken ziurtagiria aurkeztu beharko da behin betiko kitapena burutu ahal izateko.

Zazpigarren.- Baimena jabetza eskubidea salbu eta hirugarren pertsonetik gabe emana ulertuko da.

Zortzigarren.- Onartutako proiektuan edozein aldaketa egiteko, nahita-nahiezkoa da udalaren aurretiazko baimena, horretarako denboraz kasuan-kasuko dokumentazioa aurkeztu beharko delarik.

Aurkeztutako aldaketak onartzen ez diren artean, aldaketak ezin izango dira burutu.

Bederatzigarren.- Pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko diren neurri guztiak hartuko dira, materiale eta lan tresnak erabilera publikoko lursailera erortzea ekidituz, indarreango Segurtasun eta Osasun neurrien araberako babeserako bidera, ohial, etab. jarriz.

Lizentziaren titularra lanen ondorioz suertatzen idren kalte guztien erantzule izango da, eta ezin izango da udal baimena erantzunkizun hori ezabatu edota arintzeko.



Ajangizko Udala

Hamargarren.- Lanek bidea ixtea edota herritarrengan eragina duen bestelako ekintzarik beharko balute, aurretik eskudun administrazioek emandako baimenak lotzea nahita nahiezko izango da.

Hamaikagarren.- Eraikuntzak eraikitako lursailarekiko binkulazio osoa izango du, lotura hori eraikuntza erroldatzean agertu beharko delarik.

Hamabigarren.- Interesdunari ebazpen honen barri eta Eraikuntza, Instalazio eta Lanen gaineko zergaren behin-behineko kitapenaren berri ematea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

Ajangizen, 2007ko irailaren 24an.

2007/32 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

ZABOR BILKETA ZERBITZUAREN 2007KO 3. HIRUHILABETEKO PADROIAREN ONARPENA.-

2007ko 3. hiruhilabetea igarota, udal erroldak honako datuak eskaintzen ditu, 2007ko 3. hiruhilabeteke zabor bilketa zerbitzuko tasei dagokienez:

Zabor bilketa tasaren padroia:

Domiziliatuak	169	2.376,69 €
Domiziliatu gabeak .. .	5	66,25 €

Guztira 174 2.442,94 €

Aurkeztutako datuak kontutan hartuta eta indarreango legedia aplikatuz, Alkatezak

EBAZTEN DU:

Lehenengo.- 2007ko 3. Hiruhilabeteke zabor bilketa zerbitzuaren tasen padroia onartzea.

Bigarren.- Padroia jendaurrean aurkeztea, interesdunei egoki deritzoten elegiteak aurkeztu dezaten.

Hirugarren.- Onartutako padroiaren fakturazioa Kontuhartzaileari jakineraztea, tasen kobraketarako dagozkion ekintzak burutu ditzan.

Ajangizen, 2007ko irailaren 25ean.

2007/33 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA



Ajangizko Udala

Bizkaiko Foru Aldundiko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak 2007ko abuztuaren 2ko agindu bitartez, irisgarritasun planak egiteko Udalentzako diru-laguntzetarako deialdia egin zuela kontutan hartuta.

Ajangizko Udalak Ajangizko udalerrian irisgarritasun plana burutzea nahita nehezkoa dela ulertzen duela kontutan hartuta.

Irisgarritasun plana burutzeko eskatutako aurrekontuak kontutan hartuta.

Legeak ematen dizkidan eskumenetan oinarrituta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Bizkaiko Foru Aldundiko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak 2007ko abuztuaren 2ko agindu bitartez, irisgarritasun planak egiteko Udalentzako diru-laguntzetarako deialdiari erantzunez Ajangizko Udaleko irisgarritasun plana burutzeko 13.125,40 euroko dirulaguntza eskatzea.

Bigarren.- Erabaki honen berri Bizkaiko Foru Aldundiko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailari ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

Hirugarren.- Ebazpen honen berri hurrengo ospatzen den Osoko Bilkura arruntari jakineraztea.

Ajangizen, 2007ko irailaren 25ean.

ALKATETZAREN 34/2007 DEKRETUA

Udaletxe honen aurtengo Aurrekontu gastuen aurrekontu partiden artean kreditu transferentziak egitea beharrezkotzat jo denez gero, Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 20/2003 Foru Arauak 29, artikuluan jasotakoaren bebespean, hau dekretatzen dut:

Izapidetu bedi gastuen aurrekontu partiden artean kreditu transferentzia egiteko espedientea, aipatutako xedapenetan jasotako erregulazioari loturik, Idazkari Kontuhartzailearen txostena eginez. Jarraian jar bedi organo eskudunaren onespenera, Hazienda Batzordeak irizpena eman ondoren.

Ajangizen, 2007ko urriraren 1ean.

35/2007 ZENBAKIDUN ALKATETZAREN DEKRETUA



Ajangizko Udala

Honekin batera doan proposamenean zerrendatutako gastuak egin behar dira, zerbitzuek eskatzen dituzten behar eta obligazioei aurre egiteko. Aurrekontu Orokorra osatzen duen Ajangizko Udal honetako Aurrekontua garatzean eta gauzatzean nabarmendu denez, aurrekontu partidetan nahiko krediturik edo, hala badagokio, batere krediturik ez dago, indarrean dagoen aurrekontu egiturara moldatutako proposamen horretan ikusitakoaren arabera. Beraz, bidezkoa da une honetan kreditu aldaketarako espedienteari hasiera ematea, kreditu erabilgarriak proposamenean zehazten den kopuruan sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko. Hau guztia bideratuko da Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan jasotakoaren babespean.

Ajangizko agindu eta sinatzen dut, 2007ko urriaren 1ean

2007/36 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

Ajangizko Abadetxea Kultur-Etxe bilakatzeko lanen I. faseko lanen berme epea igaro dela eta, Construcciones Malaxetxebarria Anaiak S.L. enpresak 2006ko urriaren 4an aurkeztutako behin betiko bermearen itzulketa eskatzen du 2007ko irialaren 17an aurkeztutako idatzian (671 sarrera zbkia.)

2006ko irailaren 26an ospatutako batzarrean, Udal Gobernu Batzordeak Abadetxea Kultur-Etxe bilakatzeko proiektuaren I. faseko lanen adjudikazioa Construcciones Malaxetxebarria Anaiak S.L. enpresari ematea onartu zuen.

Behin betiko adjudikazioaren ondorioz eta Administrazio Publikoen Kontratuak arautzen dituen legediaren arabera, esleituak adjudikazio prezioaren %4ko bermea utzi behar du Udaletxean.

Bermea, diru ingresu bitartez ordaindu zen: Udaletxeko BBK-ko kontuan 2006ko urriaren 4an ingresatu ziren 10.946,07 euro.

Udal teknikariak egindako txostenaren arabera, Abadetxea Kultur-Etxe bilakatzeko lanak behar bezala burutu ziren eta eraikuntzaren gaur eguneko egoera egokia dela kontutan hartuta, ez dago bermea bueltatzeko inolako arazorik.

Hau guztia kontutan hartuta, Udal teknikariak egindako txostenean oinarrituta,



Ajangizko Udala

EBAZTEN DUT:

1.- Construcciones Malaxetxebarria Anaiak S.L. enpresak aurkeztutako eskaera kontutan hartuta, Ajangizko Abadetxea Kultur-Etxe bilakatzeko lanen I. faseak sortututako betebeharrei aurre egiteko jarritako HAMAR MILA BEDERATZIREHUN ETA BERROGEITA SEI EURO ETA ZAZPI ZENTIMO (10.946,07 €) euroko behin betiko bermea itzultzea.

2.- Ebazpen honen berri interesdunari ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

Ajangizen, 2007ko urriaren 5ean.

2007/37 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

Ajangizko Udaleko Hazienda Batzordeak 2007ko urriaren 4an egindako batzarrean aztertutako dokumentazioa aztertu ondoren eta Udalean aurkeztutako eskaera desberdinak kontutan hartuta,

Hazienda Batzordeak egindako proposamena aintzat hartuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Ondorengo erlazioan azaltzen diren ordainketa hauek agintzea:

- 2007 urterako Gernika-Lumoko Polikiroldegiko kuota ordaindu ondoren, ondoren zerrendatuta azaltzen diren hauek Udalari subentzioa eskatu diote, Gernika-Lumoko polikiroldegiko zuzendariak sinatutako ziurtagiria ere aurkeztuz.

Eskatzailea	Ordaindutako kuota	Diferentzia
Gaizka Aspiazu Otazua	157,20 €	61,40 €
Haritz Aspiazu Otazua	108,50 €	44,70 €
Aitor Albizu Intxausti	157,20 €	61,40 €
Oier Ispizua Olaeta	62,90 €	24,60 €

Ajangizko Udalak, 1999ko urriaren 13an ospatutako Osoko Bilkuran, Gernika-Lumoko Udalak eskaini eta Ajangizko Udalak eskaintzen ez dituen zerbitzu publikoen prezioetan erroldatu eta erroldatu gabeen arteko prezioen diferentzia Ajangizko Udalak ordaintzea onartu zuen.

Goian aipatutakoa kontutan hartuta, Gernika-Lumoko Udal Polikiroldegiko kuotaren erroldatu eta erroldatu gabeen arteko diferentzia ordaintzea onartzen da, Gernika-Lumoko Polikiroldegiko zuzendariak egindako ziurtagiriak aintzat hartuta.



Ajangizko Udala

Eskatzailea	Ordaindu beharreko laguntza
Gaizka Aspiazu Otazua	61,40 €
Haritz Aspiazu Otazua	44,70 €
Aitor Albizu Intxausti	61,40 €
Oier Ispizua Olaeta	24,60 €

- Jose Luis Gerrikaetxebarria jaunak, Maddi Gerrikaetxebarriaren 2006-2007ko Gernika-Lumoko Musika Eskolako matrikula burututa udal subentzinoa eskatu du Udaletxean 2007ko uztailearen 26an.

Ajangizko Udalak 1999ko urriaren 13an ospatutako Osoko Bilkuran, Gernika-Lumoko Udalak eskaini eta Ajangizko Udalak eskaintzen ez dituen zerbitzu publikoen prezioetan erroldatu eta erroldatu gabeen arteko prezioaren diferentzia Ajangizko Udalak ordaintzea onartu zuela kontutan hartuta.

Eskatzaileek matrikularen eta urria eta ekaina bitarteko ordainketen justifikantea aurkeztu dutela kontutan hartuta, aurkeztutako ziurtagiriaren arabera, Jose Luis Gerrikaetxebarria jaunari Gernikako Musika Eskolan erroldatuek eta errolda-gabeek ordaintzen dutenaren arteko diferentzia ordaintzea dirulaguntza modura, guztira 116,05 euro ordainduz 2006-2007 bitarteko ikasturteko matrikula eta hilerokoen ordainetan.

- Leire Astelarra Urberuaga andreak, 2006-2007ko Gernika-Lumoko Musika Eskolako matrikula burututa udal subentzinoa eskatu du Udaletxean 2007ko uztailearen 19an.

Ajangizko Udalak 1999ko urriaren 13an ospatutako Osoko Bilkuran, Gernika-Lumoko Udalak eskaini eta Ajangizko Udalak eskaintzen ez dituen zerbitzu publikoen prezioetan erroldatu eta erroldatu gabeen arteko prezioaren diferentzia Ajangizko Udalak ordaintzea onartu zuela kontutan hartuta.

Eskatzaileek matrikularen eta urria eta ekaina bitarteko ordainketen justifikantea aurkeztu dutela kontutan hartuta, aurkeztutako ziurtagiriaren arabera, Leire Astelarra Urberuaga andreak Gernikako Musika Eskolan erroldatuek eta errolda-gabeek ordaintzen dutenaren arteko diferentzia ordaintzea dirulaguntza modura, guztira 201,55 euro ordainduz 2006-2007 bitarteko ikasturteko matrikula eta hilerokoen ordainetan.

- 2007ko Ibilgailuen zerga kobratuta, badira zenbait auzotar ibilgailuei baja emon diotela eta ordaindutakoaren kopuru bat jasotzeko eskubidea dutenak:

<u>TITULARRA</u>	<u>Ibilgailua</u>	<u>Baja Data</u>	<u>Ordaindutako zerga kopurua</u>	<u>Bueltatu beharrekoa</u>
M. Begoña Gangoiti Arzayo	4891-CCZ	2007-03-19	96,16	72,12

Dokumentazioa aztertuta, ibilgailuen baja dela kausa, 2007ko ibilgailuaren gaineko zergaren itzulketari buruzkoa.



Ajangizko Udala

- Barrutia Eskualdeko Eskola Publikoaren Guraso Elkartek, ekolaz kanpoko ekintzetarako kontratatu behar izan duten monitoreen kostuari aurre egiteko Udal laguntza eskatu zuen Udaletxean.

Aurkeztutako idatzian azaltzen dutenaren arabera, eskaera udalerrri guztietara zuzendu da, herri bakoitzetik doazen umeen arabera dirulaguntza eskatuz. Ajangiztik hogeita bat ume doaz Barrutiko Eskolara.

Eskaera kontutan hartuta, Barrutia Eskualdeko Eskola Publikoaren Guraso Elkarteari, laurehun eta berrogeita hamar (450,00 €) euroko laguntza ematea, eskolaz kanpoko orduetan burutzen diren ekintzetarako monitore kostuari aurre egiteko, 2007 urteko aurrekontuaren gain.

- Marta Moreno Zameza andreak, familiaren etxebizitza osatzen duen eraikinari dagokion 2007ko ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordainketa ziurtagiria aurkeztu du, Udalak familia ugarien laguntzarako onartuta duen dirulaguntza eskatuz.

Udalak 2005eko abenduaren 20an Osoko Bilkuran hartutako erabakiz, familia ugarietzako laguntzak onartu zituen, besteak beste, Ondasun higiezinaren gaineko zergarekiko, honako baldintza hauekin:

Familia ugariak, familiaren etxebizitza osatzen duen eraikinari dagokion ondasun higiezinaren gaineko zergari dagokionez dirulaguntza jasoko dute, honako baldintza hauek betetz gero:

Dirulaguntza, Bizkaiko Foru Aldundiak urteko Ondasun Higiezinaren Gaineko zergaren errolda onartzean aplikatuko da, ohiko etxebizitzari dagokionez.

- *Familia ugaria osatzen duten kide guztiak herrian erroldatuta egon beharko dira.*
- *Bizkaiko Foru Aldundiak ematen duen Familia Ugarien txartela aurkeztu beharko da.*
- *Laguntza familiaren ohiko etxebizitza osatzen duen eraikinari aplikatuko zaio.*
- *Laguntza hau jaso ahal izateko, familia unitatea osatzen duten kideetako inork ez du beste eraikin bat jabetzan izango.*
- *Dirulaguntza kopurua honako baldintza hauek araberakoa da:*
 - *3 seme-alabadun familia ugaria: %50*
 - *4 seme-alabadun familia ugaria: %60*
 - *5 edo gehiagoko seme-alabadun familia ugaria: %90*

Udalak araututako laguntzek zehaztutako baldintza guztiak betetzen direla ikusita, Marta Moreno Zameza andreak egindako eskaera onartu eta 2007ko ohiko etxebizitzaren ondasun higiezinaren gaineko zergaren familia ugarietzako laguntza ematea: 606,65 euroren %50 = 303,32 euro.

Bigarren.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.



Ajangizko Udala

Ajangizen, 2007ko urriaren 5ean.

2007/38 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

2007ko Udal Aurrekontuaren 111.23901 "Alkatearen indemnizazioa" partidak aplikaziorik izango ez duela kontutan hartuta, partida horretan aurreikusitako 3.000 euroak kreditu nahikoa ez duten 111.22602 "Protokolo gastuak" eta 111.23001 "Plenoetara joateagatik" partiden artean banatzea erabaki da, kreditu transferentzia bidezko 3/2007 zenbakidun aldaketa bidez:

Gutxitu beharreko partida:

111.23901 3.000,00 €

Gehitu beharreko partidak:

111.22602 1.500,00 €

111.23001 1.500,00 €

Proposatzen den transferentzia kapitulu bereko partiden artekoa denez, Alkateari dagokio horren onarpena, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Aginduko 29.3 artikulua araututakoaren arabera.

Adierazitako guztia kontutan hartuta eta Hazienda Batzordearen irizpena aintzat hartuta,

EBAZTEN DUT:

1.- Transferentzia bidezko 3/2007 kreditu aldaketa onartzea.

2.- Ebazpen honen berri Udal kontuhartzaitzari ematea.

Ajangizen, 2007ko urriaren 5ean.

2007/39 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

Bake epaitegietako gastuei aurre egiteko udalantzako diru laguntzak iragarri eta arautzeko 2007ko irailaren 12ko, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuaren aginduaren berri izanda.

Bak e epailearen eta Epaitegiko idazkariaren txostena ikusi ondoren, zera ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Bulego ekipamendu modura, FAX berri bat erosteko, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburuari, BERREHUN ETA HIRUROGEITA HIRU



Ajangizko Udala

EURO ETA HOGEITA HAMABI zentimotako (263,32 €) aurrekontuarekin, dirulaguntza eskatzea..

Bigarren.- Interesdunari ebazpen honen berri ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

Ajangizen, 2007ko urriaren 15ean.

2007/40 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

Udal langilea den Jose Fernando Albizu Barrena jaunaren 1991ko abuztua eta 1993ko ekaina bitarteko kotizazio kuotak bueltatzeko, Ajangizko Udalak Gizarte Asegurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kontra jarritako errekurtoa erantzunez, Bilboko 3. Zenbakidun Epaitegi Kontentzioso-Adminsitratiboak emandako 221/07 Epaia ikusita.

Toki Erregimeneko Arauak jasotzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak ematen dizkidan eskumenetan oinarrituta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Bilboko 3. Zenbakidun Epaitegi Kontentzioso-Adminsitratiboak emandako 221/07 Epaiaaren aurkako dagokion apelazio errekurtoa aurkezteko agindua ematea.

Bigarren.- Ebazpen honen berri Jsus Ricardo Amurrio Velez eta Ismael Oar-Arteta Undabeitia abokatuei ematea, dagozkien neurriak har ditzaten.

Hirugarren.- Ebazpen honen berri ospatzen den hurrengo ohiko Osoko Bilkuran ematea.

Ajangizen, 2007ko urriaren 15ean.

2007/41 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

Ajangizko Maier inguruko industria hirilurreko urbanizazio proiektua onesteko Maier S.Coop.en izen eta ordezkartizan, José Ramón San Sebastián jaunak 2007ko urriaren 9an (709 sarrera zbkia.) Ajangizko Maier inguruko industria hirilurreko urbanizazio proiektua eta lurren egokipenerako proiektua aurkeztu zituen.

Udal Arkitekto aholkulariak egindako txostenaren arabera, lurren egokipena urbanizazio proiektuaren fase modura ulertu beharra dago. Urbanizazio proiektuari dagokinez, hasierako onarpenerako baldintzak betetzen ditu.

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21.1.j) artikuluan araututakoa aintzat hartuta,

EBAZTEN DUT:



Ajangizko Udala

Lehenengo.- Ajangizko Maier S.Coop. inguruko industria hiri lurreko jabe bakarreko urbanizazio urbanizazio proiektuari hasierako onarpena ematea.

Bigarren.- Maier S.Coop.ek lurren egokipenerako proiektuari ezetza ematea, urbanizazio proiektua onartzen ez den bitartean.

Hirugarren.- Hasierako onarpenarekin proiektuak Eusko Jaurlaritzako Uren Zuzendaritzara bidaltzea, bidezko txostena egin dezan.

Laugarren.- Haisierako onarpenarekin batera, jendaurreko erakustaldi epeari hasiera ematea, erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizilean, Udal Iragarki taulan eta GARA egunkarian argitaratuz.

Bosgarren.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea.

Ajangizen, 2007ko urriaren 22an.

2007/42 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

Maier S.Coop. enpresaren izen eta ordezkartzan, Juan Luis Astoreka jaunak, metalezko biltegiari atxekitutako egitura burutuzeko baimen eskaera aurkeztu zuen Udaletxean 2007ko urriaren 5ean (697 sarrera zbkia.).Eskaerarekin batera, proiektuaren hiru ale aurkeztu zituen.

Udal teknikariak aurkeztutako dokumentazioa aztertuta egindako txostenaren arabera, 61,82 m2ko biltegirako egitura atxekituak ez du Ajangizko Udalak onartutako Maier inguruko Xehetasun Azterlanak araututakoa betetzen.

Adierazitakoa kontutan hartuta eta udal teknikariak egindako txostena haintzat hartuta,

Legeak ematen dizkidan eskumenetan oinarrituta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Maier S.Coop. enpresaren izen eta ordezkartzan, Juan Luis Astoreka jaunak, metalezko biltegiari atxekitutako egitura burutuzeko baimen eskaerari ezetza ematea.

Bigarren.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

Ajangizen, 2007ko urriaren 22an.

2007/43 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA



Ajangizko Udala

Ajangizko Udaleko Hazienda Batzordeak 2007ko urriaren 18an egindako batzarrean aztertutako dokumentazioa aztertu ondoren eta Udalean aurkeztutako eskaera desberdinak kontutan hartuta,

Hazienda Batzordeak egindako proposamena aintzat hartuta,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Ondorengo erlazioan azaltzen diren ordainketa hauek agintzea:

- 2007 urterako Gernika-Lumoko Polikiroldegiko kuota ordaindu ondoren, ondoren zerrendatuta azaltzen diren hauek Udalari subentzioa eskatu diote, Gernika-Lumoko polikiroldegiko zuzendariak sinatutako ziurtagiria ere aurkeztuz.

Eskatzailea	Ordaindutako kuota	Diferentzia
Maite Intxausti (Gorane Urzuriaga)	43,00 €	17,90 €
Jon Ander Gondra	62,90 €	24,60 €

Ajangizko Udalak, 1999ko urriaren 13an ospatutako Osoko Bilkuran, Gernika-Lumoko Udalak eskaini eta Ajangizko Udalak eskaintzen ez dituen zerbitzu publikoen prezioetan erroldatu eta erroldatu gabeen arteko prezioen diferentzia Ajangizko Udalak ordaintzea onartu zuen.

Goian aipatutakoa kontutan hartuta, Gernika-Lumoko Udal Polikiroldegiko kuotaren erroldatu eta erroldatu gabeen arteko diferentzia ordaintzea onartzen da, Gernika-Lumoko Polikiroldegiko zuzendariak egindako ziurtagiriak aintzat hartuta.

Eskatzailea	Ordaindu beharreko laguntza
Maite Intxausti (Gorane Urzuriaga)	17,90 €
Jon Ander Gondra	24,60 €

- Emilia Regatos Gómez andreak, Maider Bengoetxea Regatosen 2006-2007ko Gernika-Lumoko Musika Eskolako matrikula burututa udal subentzioa eskatu du Udaletxean 2007ko urriaren 18an.

Ajangizko Udalak 1999ko urriaren 13an ospatutako Osoko Bilkuran, Gernika-Lumoko Udalak eskaini eta Ajangizko Udalak eskaintzen ez dituen zerbitzu publikoen prezioetan erroldatu eta erroldatu gabeen arteko prezioaren diferentzia Ajangizko Udalak ordaintzea onartu zuela kontutan hartuta.

Eskatzaileek matrikularen eta urria eta ekaina bitarteko ordainketen justifikantea aurkeztu dutela kontutan hartuta,

Eskatzaileek aurkeztutako ziurtagiriaren arabera, Emilia Regatos Gomez andreari, Maider Bengoetxea Regatosen Gernikako Musika Eskolan erroldatuek eta errolda-gabeek ordaintzen



Ajangizko Udala

dutenaren arteko diferentzia ordaintzea dirulaguntza modura, guztira 116,05 euro ordainduz 2006-2007 bitarteko ikasturteko matrikula eta hilerokoen ordainetan.

- 2007ko Ibilgailuen zerga kobratuta, badira zenbait auzotar ibilgailuei baja emon diotela eta ordaindutakoaren kopuru bat jasotzeko eskubidea dutenak:

<u>TITULARRA</u>	<u>Ibilgailua</u>	<u>Baja Data</u>	<u>Ordaindutako zerga kopurua</u>	<u>Bueltatu beharrekoa</u>
Serafin Ormaetxea Madariaga	BI-5060-AV	2007-08-03	46,00	11,50

Dokumentazioa aztertuta, ibilgailuen baja dela kausa, 2007ko ibilgailuaren gaineko zergaren itzulketa burutzea.

Ajangizen, 2007ko urriaren 22an.

2007/44 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA

JOSE MARI OLAETA JAUNAK LURRASKA INGURUMEN ZENTROAREN IZENEAN KANPANTXUKO LURRASKA KOKAGUNEAN ZIBERAULA BAT ERAIKITZEKO AURKEZTUTAKO BAIMEN ESKAERA.-

8/2007 Esp.

Jose Mari Olaeta jaunak, Lurraska Ingurumen Zentroaren izen eta ordezkartzan, Ajangizko Kanpantxu auzoan kokatuta dagoen Lurraska kokagunean ziberaula bat eraikitze baimen eskaera aurkeztu zuen Udaltxean. Eskaerarekin batera, Urbano Igaralde Telletxea arkitektoak egindako eta dagokion bazkun profesionalak onetzitako exekuzio proiektua aurkeztu du. Proiektuaren arabera, lanen aurrekontu orokorra, 42.529,00 eurokoa da.

Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Egitamu Gidariak 130. Atalean aurreikusten duen aginduzko txostena lortu asmoz Udalak egindako eskaera erantzunez, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren Patronatuko Batzorde Iraunkorrak 2007ko urriaren 17an egindako batzarrean egindako eskabideari aldeko txostena ematea erabaki zuen.

Udal arkitekto aholkulariak egindako txostenaren arabera, Kanpantxuko Lurraska kokagunean Naturaren azterketarako ziberaula bat eraikitze exekuzio proiektua Ajangizko Arau Sorosgarriek jasotzen dituzten hirigintza baldintzak betetzen ditu, eta ondorioz ez dago lanetarako udal baimena emateko inolako hirigintza oztoporik.



Ajangizko Udala

Adierazitako guztia kontutan hartuta eta udal teknikariak sinatutako aldeko txostenean oinarrituta, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 21 q) atalean jasotzen dituen eskumenen arabera,

EBAZTEN DUT:

Lehenengo.- Jose Mari Olaeta jaunari, Lurraska Ingurugiro Zentroaren ordezkari den einean eta aurkeztutako proiektuaren arabera, Ajangizko Kanpantxu auzoko Lurraska kokagunean ziberaula bat eraikitzeko baimena ematea.

Bigarren.- Eraikuntza lanak hasteko epea hiru hilabetekoa izango da eta sei hilabetekoa bukatzeko epea, bi epe hauek jakinerazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko direlarik.

Hirugarren.- Eskainitako epearen erdiko luzapen bakarra eman daiteke, beti ere interesdunak epea bukatu aurretik eta behar bezala arrazoituta luzapenerako eskaera egiten baldin badu, idatziz, eta Udal Erregistroan sarrera emanez.

Aipatutako epeetako bat beteko ez balitz, lizentzia iraungitua eta efektu gabea bilakatuko da, horrek lanak berehala etentzeko beharra ekarriko duelarik. Etentzea berehalakoa ez bada, zigor prozedura martzan jarriko litzateke. Pertsona eta ondasunen segurtasunerako beharrezkoak diren lanei dagokienez, udalaren ikuskaritzarekin bukatuko dira.

Laugarren.- Udalari lizentziaren titulartasun aldaketa oro jakinerazi beharko zaio, titular berriak zein zaharrak sinatutako idatzi bidez. Titular berriak idatzi horretan, lizentziaren ondorioz sortutako betebeharrak bere gain hartuko ditu espresuki. Betebeharrak agiri publikoan bilduta baleude, titular berriak formalitate berberak aplikatuz bereganatu beharko litzuke.

Bosgarren.- Aurkeztutako agirietan azaltzen diren datuak gezurrezkoak balira edota lanak burutzean gora-beherarik suertatuko balitz, lizentziaren titularra zein proiektuaren egilea erantzule izango dira. Arau hau ez da aplikagarri izango proiektua egin duen teknikaria lanen zuzendari ez denean, kasu hauetan xehetasun hau Udalari aurretik jakinarazi beharko zaiolarik, dagokion onetsitako dokumentazioa aurkeztuz. Azken baldintza hau beteko ez balitz, lizentziaren titularrarekin batera proiektua sinatu duen teknikaria ere erantzule dela ulertuko da.

Teknikari zuzendaria aldatuko balitz, Udalari jakinerazi beharko zaio, aldaketa hori balioezten duen onetsitako dokumentazioa aurkeztuz.

Seigarren.- Eraikuntza lanak hasi aurretik, eskatzaileak Eraikuntza Instalazio eta Lanen gaineko zerga ordaindu beharko du, behin betiko kitapenaren arabera. Lanak bukatzean, lan bukaerako azken ziurtagiria aurkeztu beharko da behin betiko kitapena burutu ahal izateko.

Zazpigarren.- Baimena jabetza eskubidea salbu eta hirugarren pertsonetik kalterik gabe emana ulertuko da.



Ajangizko Udala

Zortzigarren.- Onartutako proiektuan edozein aldaketa egiteko, nahita-nahiezkoa da udalaren aurretiazko baimena, horretarako denboraz kasuan-kasuko dokumentazioa aurkeztu beharko delarik.

Aurkeztutako aldaketak onartzen ez diren artean, aldaketak ezin izango dira burutu.

Bederatzigarren.- Pertsona eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko diren neurri guztiak hartuko dira, materiale eta lan tresnak erabilera publikoko lursailera erortzea ekidituz, indarreango Segurtasun eta Osasun neurrien arabera babeserako bidera, ohiak, etab. jarritz.

Lizentziaren titularra lanen ondorioz suertatzen idren kalte guztien erantzule izango da, eta ezin izango da udal baimena erantzunkizun hori ezabatu edota arintzeko.

Hamargarren.- Lanek bidea ixtea edota herritarrengan eragina duen bestelako ekintzarik beharko balute, aurretik eskudun administrazioek emandako baimenak lotzea nahita nahiezko izango da. Edozein kasutan, lanak burutzean Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Erabilera eta Kudeaketarako Egitamu Gidariak eskatzen dituen baldintzak bete beharko dira.

Hamaikagarren.- Eraikuntzak eraikitako lursailarekiko binkulazio osoa izango du, lotura hori eraikuntza erroldatzean agertu beharko delarik.

Hamabigarren.- Interesdunari ebazpen honen barri eta Eraikuntza, Instalazio eta Lanen gaineko zergaren behin-behineko kitapenaren berri ematea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

Ajangizen, 2007ko urriaren 25ean.

3.- HAZIENDA BATZORDEAREN OSAKETAREN ZEHAZPENA, BEHAR BADA.-

2007ko uztailaren 12an osapatutako Osoko Bilkuran, besteak beste Hazienda Batzordearen eraketa onartu zen, honako konposketa honekin:

Alkate jauna izango da Hazienda Batzordeko buru, horrez gain, Angel Luis Uribarri eta EAJ/PNVko ordezkari batek osatuko dutelarik.

Tesoreroa, Angel Luis Uribarri jauna izango da.

EAJ-PNVko ordezkariak, parte hartze horri ezetza eman diote.

Hazienda Batzordea osatu ahal izateko gutxienez hiru lagunek parte hartu behar dutela eta, Alkateak Jabier Berrojalbiz Bidaguren jauna hirugarren kide modura izendatzea proposatzen du, beti ere EAJ-PNVko ordezkariari atea zabalik utzita.



Ajangizko Udala

Proposamena kontutan hartuta, Hazienda Batzordea honela eratuta geratzen da:

Alkate jauna izango da Hazienda Batzordeko buru, horrez gain, Angel Luis Uribarri eta Jabier Berrojalbiz jaunek osatuko dutelarik.

Tesoreroa, Angel Luis Uribarri jauna izango da.

4.- AJANGIZKO UDALEKO 2006 URTEKO KONTU OROKORREN ONARPNEA, BEHAR BADA.-

Idazkariak 2006 urteko Kontu Orokorrak aurkezten ditu onarpenerako.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Etrakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 63. Artikuluak araututakoa betez, Ajangizko Udaleko 2006ko kontu orokorrak jendaurrean aurkeztu behar dira.

Jenduarreko epean inolako alegazio ezta erreklamaziorik aurkeztu ezean Kontu Orokorrak behin betiko onartutzat ematen dira.

Udal Osoko Bilkurak, batzartutako ziengotzieren aho batez ebazten du:

2006ko Udal Aurrekontuko Kontu Orokorrak onartzea.

5.- UDAL AURRONTUKO 4/2007 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udalak 2007 aurrekontuan zenbait aldaketa egin beharra ikusi du, alde batetik burutu nahi diren inbertsio berriak egiteko eta bestetik aurrekontuaren egoera egokitzeko; hori dela eta gehikuntza bidezko kreditu aldaketa proposatzen da dudiruzaintzako gerakinaren gain.

GEHITU BEHARREKO PARTIDAK PARTIDAS A INCREMENTAR	KOPURUA CUANTIA
121.13000	1.225,00
121.13001	50,00
121.16201	200,00
121.22799	5.000,00
451.48106	1.076,33
121.62600	4.300,00
432.60101	15.600,00
432.60103	26.661,27
432.62203	148.548,89
460.64300	13.200,00



Ajangizko Udala

511.62210	26.138,00
GUZTIRA / TOTAL	241.999,49 €

GUTXITU BEHARREKO PARTIDAK PARTIDAS A DISMINUIR	KOPURUA CUANTIA
Remanente líquido de tesorería	241.999,49 €
GUZTIRA / TOTAL	241.999,49 €

Aldaketa honek, kreditu gehikuntza suposatzen duenez, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauko 34.3 artikulua araututakoaren arabera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Hau guztia kontutan izanda, Udal Osoak aho batez onartzen du:

Lehenengo.- Kreditu gehiketaz egindako 4/2007 aurrekontuaren aldaketa behin behinez onartzea.

Bigarren.- Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, interesdun direnek dagozkien elegiteak aurkezterik izan dezaten.

Hirugarren.- Elegiterik aurkeztuko ez balitz, proposatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

Laugarren.- Ebazpen honen berri udal kontuhartzaitzari ematea, beharrezko diren kontabilitate aldaketak egin daitezkan.

6.- UEMAKO ESTATUTEN ALDAKETAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko Batzar Nagusiak, 2004ko urriaren 16an egindako bilkuran, bere estatutuen ondorengo artikulua aldatzea onartu zuen:

1. artikulua.- UEMA osartzen duten herrien zerrenda eguneratzea.

4. artikuluaeren erredakzio berria honako hau da:

1) UEMAREN helburu orokorra da euskara zerbitzua eskaintzea bertako partaide diren udal administrazioen barne jardura zein udalerrietako gizarte bizitzaren esparru guztietan euskararen erabilera ahalbideratzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko. Euskara zerbitzuak udaletako erabilera planak diseinatu eta udal langileak trebatuko ditu.

2) UEMAKO udalerrietan kultur ekitaldiak eta jaialdiak antolatzeke kultur zirkuitua jarriko du martxan. Horretarako, kultur zerbitzua antolatuko du mankomunitateak.



Ajangizko Udala

3) UEMAKo udalen garapen sozio-ekonomikoa bultzatzeko aholkularitza zerbitzua eratuko du mankomunitateak.

4) UEMAKo udalerrietako merkatarien zerbitzua hobetzeko zerbitzu teknikoa antolatuko du mankomunitateak.

5) Etorकिन integrazioa ahalbideratzeko planak diseinatuko ditu mankomunitateak eta horretarako zerbitzua antolatuko du.

6) Gainontzeko helburu eta zerbitzuei dagokienez, legediak mankomunitateei ematen dizkien eskubide eta eskumenen jabe izango da.

7) Bertako partaide diren udalen ahaleginak emaitza maila gorena izan dezaten, UEMAK hauek ekintzak koordinatu eta beharrezko laguntza teknikoa eskainiko die.

23. artikulua.- 1. Eta 2. Puntuak idazkera berria izango dute:

1. *Azken udal eroldaren arabera, bere bizitnlegoaren %70etik gora euskalduna izatea.*
2. *Udal eta udalerrri mailan euskaraz bizitzeko konpromisoa.*

Aldi baterako erabakiak.- Bigarren erabakiaren azken esaldia kentzea.

Kenduko den esaldia hau da: *zeinaren lana UEMA sortu bitartean BPZ zerbitzuak bete duen.*

Aldaketa onartuz Batzar Nagusiak hartutako ebazpena UEMAKo udaletako iragarki taulan hilabete egon eta gero, Bizkaiko Foru Aldundira bidali da eta legezko hilabeteko epean ez da inongo oharririk jaso.

Hurrengo urratsa Mankomunitateko udalek estatutu aldaketei behin betiko onespena ematea da.

Proposamena botaziora eramanda, bertaratutako zinegotziek aho batez estatutuen aldaketa onartu dute.

7.- EMAKUMEEN INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN ONARPENA, BEHAR BADA.

Alkateak EUDELeK aurkeztutako ondorengo adierazpena irakurri eta bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

**AZAROAREN 25eko ADIERAZPEN INSTITUZIONALA-
EMAKUMEEN INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA**



Ajangizko Udala

Beste urte batez, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, AJANGIZko Udalak salaketa egin nahi du eta biolentzia matxistaren aurka lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du, gure Udalerrian ere irauten duen gaitza baita.

Jakin badakigu emakumeen kontrako biolentziak kontzientzia kolektiboan sakonki errotutako jokabide-eredu soziokultural batean oinarrituta dagoela. Neska eta mutilak gizarteratzeko modu desberdinean du jatorria non eratzen, igortzen, barneratzen eta adierazten diren generoaren rolak eta estereotipoak, eta, aldi berean, biolentziaren beraren legitimazio sozial eta kulturalako prozesuen bidez indartzen den. Biolentzia hori desagerrarazteko, ahal denik eta azkarren eta nahitaez bereizi behar dugu maskulinitatearen eta feminitatearen zenbait ereduren ikasketa emakumeen kontrako biolentzia erabiltzetik eta/edo legitimatzetik, eta, horretarako, berdintasunerako hezkuntzan, berdintasunean oinarritutako harreman afektibo osasuntsuen sustapenean eta pertsona autonomo, aske eta berdinen garapen integralean oinarritutako irtenbideak planteatu behar ditugu.

Aurten, neska nerabeen kontrako biolentziazko harremanetan jarri nahi dugu arreta, izan ere, sektore hori sarritan ahazten dugu arlo honetan garatzen ditugun ekimenetan. Gainera, azken azterketek erakusten dutenez, biolentzia sexista jasaten duten emakumeak gero eta gazteagoak dira. Biolentzia hori, besteak beste, beldurraraztearen, eraso fisikoaren edo abusuaren bidez gauzatzen da, baina baita modu finagoen bidez ere, esate baterako, isolamenduaren bidez, txantaje emozionalaren bidez, manipulazioaren bidez, erasoaren bidez, gutxietsiz eta, batez ere, biktima kontrolatuz. Metodo horiek antzematen zailagoak dira neska eta mutil gazteentzat harreman afektiboetan.

Horren guztiaren jakitun, Udal honek

ONARTU EGITEN DU KONPROMISOA, bere eskumenen esparruan eta indarreko legeria aplikatuz, berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako udal politika aktibo, oso eta koordinatua garatzeko, arreta berezia jarritz neska gazte eta nerabeen kontrako biolentzian, beraien partehartzea aintzat hartuta.

GONBIT EGITEN DIE hiritar guztiei, eta, bereziki, udalerriko neska eta mutilei azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta izango diren ekitaldietan era aktiboan parte hartzera.

8.- ERREGU ETA GALDERAK.-



Ajangizko Udala

- Alkate Udalburuak, irisgarritasun planaren berri ematen du. Udalak irisgarritasun plana aurrera eramateko proiektua martxan jarri duela azaltzen du, plana burutzeko Eusko Jaurlaritzari dirulaguntza eskatuz.

Enpresa desberdinekin kontaktatu ondoren, ADIR enpresa izan da plana aurrera eraman duena, Ajangizen irisgarritasuna lortzeko burutu beharreko lanak zehazten dituen plana aurkeztuz.

Plan horretan azaltzen diren lanek ere hurrengo urtetan dirulaguntza hartzeko aukera daukate, batez ere ranpak, igogailuak...

Plana burututa hurrengo urteetan burutu beharreko lanak gero zehaztuko dira, beti ere lan horien lehentasunaren arabera.

- Maier S.Coop.ekin izandako azken mobimenduen berri ematen du Alkateak. Maierek uztailean lurren egokipenerako proiektua aurkeztu zuela azaltzen du. Udalak proiektu hori Eusko Jaurlaritzako uren zuzendaritzara eta Urdaibaiko Patronatora bidali zuen, eta Patronatoak zenbait arazo jarri zizkion, planaren mugak Urdaibaiko Patronatokoekin bat ez zetozelako. Horren berri Maiერი eman zitzaion, berriro ere urbanizazio proiektua aurkeztu behar zutela ohartaraziz.

Urriaren 9an Maierek urbanizazio proiektua aurkeztu du Udaletxean, lurren egokipenerako proiektu berri batekin. Urbanizazio proiektu horri hasierako onarpena eman eta uren zuzendaritzara bidali da txostena egin dezaten.

Prozedura hori aurrera doan bitartean, Maierrekin batzar bat egitea espero da, urbanizazioaren faseak zehaztuz joateko.

- Alkateak Mendietako rotonda eta Maier-Mendieta bidea konpontzeko proiektuen berri ere ematean du. Aurreko Udalbatzak Aldundiarekin hasitako lana jarraituz, Aldundira joan zirela aipatzen du, Iñaki Hildagorekin hitzegiten. Honek Carlos Estefaniakin egoteko aipatu zuen, eta Estefaniak rotonda burutu ahal izateko lurren disponibilitatea izan behar zela aipatu zuen. Horretarako nahita nahiezkoa da Serreria inguruko egoera atontzea, rotondaren parte batek Serreriako lurak hartzen baititu.

Azaroaren 12rako Patxi Sierra, Udal harremanetarako Diputatuarekin eta Gorka Estevez, Errepideen Zuzendariarekin batzartzeko eguna hartuta dago, bi gai horien buruz hitzegiteko.

- Serereriako lurrei dagokionez, horretan ere jabeekin harremanetan jarri direla aipatzen du Alkateak. Arau Sorosgarriak aldatzeko zein aukera dauden aztertu eta negoziazioa nondik-nora jotzeko lanean dabilzala aipatzen du, eta aukeren artean Serereriako operazioari frontoi barria eraikitzeko proiektua lotzea pentsatzen ari dela.

Frontoia, Abadetxe ondoan kirol ekipamendurako kalifikatutako lurretan burutzea izango litzateke asmoa, horrekin herrigunea osatu asmoz.

Roman Etxeandia jaunak, frontoia Bizkailurrek etxeak egin dituen lurren ondoan eraiki daitekela aipatzen du, unitate horretan 3.000 m² baitaude Udalarenak izango direnak, nahiz eta



Ajangizko Udala

bideaz bestalde egon. Abadetxe ondoan aparkaleku bat egin daitekela aipatzen du. Berak aurreproiektu bat egin duela aipatzen du, eta nahi izanez gero Udalera ekarri dezakeela.

Angel Luis Uribarri jaunak proiektua ekartzeko esaten dio, zenbat eta datu gehiago izan azterketa hobea izango baita. Oraindik dana aztertzen ari direla aipatzen du, eta frontoia herritarrei ekintzetarako aukera emateko pentsatuta dagoela dio, ez eraikuntza handi bat egiteko.

- Bestalde Alkateak, Bizkailur eta ondoko txaletak direla eta Iberdrolarekin batzarra egin zutela aipatzen du. Bizkailur eta txalet berriei argia emateko gaur eguneko transformadorea nahikoa ez dela eta berria egin behar omen dute, gaur eguneko transformadore aereoak kenduz. Lan hauek UE1 eta UE2ko promotoreek egin beharko dituzte.

Puntu honetan hiru txaleteko jabeekin arazoa dago Udalak sinatu omen zuen hitzarmen baten interpretazioa dela eta. Jabeek diotenez, Udalak urbanizazio zerbitzuen %50.a ordaindu behar du, baina Landa abokatuarekin kontsultatu ondoren interpretazioa desberdina izan daitekela aipatu du. Egoera konpontzeko batzar bat proposatzen da, txaletako jabeak, udala eta Landaren artean.

Iberdrolarekin gainera Kanpantxun dagoen arazoaz ere hitzegin zen, etxe berriak egiteko transformadore berria jarri beharra baitago. Lan honen kostua argia lehengo eskatzen duenaren gain jartzen da, horrek suposatzen duen kostuarekin. Bidezkoa Kanpantxun etxea egiteko aukera daukaten jabe desberdinekin hitzegitea da, denen artean akordioa lortu eta arazoari irtenbidea emoteko asmoz.

- Azkenik bukatzeko Alkateak Mendieta auzoan bide ondoan dagoen parkearen berri ematen du. Parke hori Bizkaiko Foru Aldundiaren jabetzapekoa da, baina urtetan Udala izan da bedarra ebakitzeaz arduratu izan dana. Egoera hau konpontzeko Aldundiari karta bat bidali zaio, azken urtetako fakturak erantziz.

Inguru horretan gainera, kotxe karrerak egiten direla eta salaketa jaso dela aipatzen du Alkateak, horrek inguruan bizi diren herritar eta haurrentzat suposatzen duen arriskuarekin. Gainera gauez parkean kotxeak musika jarrita eta ateak zabalik izaten direla ere aipatzen du salaketak, inguruko etxeetako loa oztopatzen delarik.

Salaketa honen berri Gernikako Ertzaintxeari eta Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan Sailari eman zaio, egoera konpontzeko eskatuz.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko bederatzi t'erdia direnean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA